

Lana eta osasun mentala: generoaren ikuspegitik aztertutako etxeko lanen eta langintzaren estresa

Manuel Norbert Sanchez de Miguel
Psikologian doktorea, EHUKo irakaslea

Azken hamarkadan genero eta estresari buruzko ikerketak gero eta gehiago dira Gizarte Psikologiaren arloan. Etxeko eta lantokiko aldibereko zereginak eragindako estresa (bereziki emakumezkoengan) zenbait ikuspuntutatik aztertu da. Errealitate horren aurrean sentsibilizatuak, trantsizio psikosozialari, noranzko biko estres eta rol arteko gatazkari (etxeko lanen eta langintzaren artekoari), estresaren analisi-mailari eta botereei buruzko ikerketa nagusiak aztertuko ditugu artikulu honetan. Artikuluaren amaieran, laburpen gisa, ikerketa hauen ezaugarri orokorrak zein aurkitutako hutsuneak azaltzen saiatuko gara. Ildo horretatik, datozen ikerketak nola bideratu beharko liratekeen hausnartzen du artikulu honen autoreak, batez ere, populazioaren testuinguru sozioekonomikoa (makro mailan) nahiz bikotearen unibertsoari buruzko analisi kualitatiboa (mikro mailan) ezinbestekotzat hartuz.

During latest decade the research about gender and stress has been increased in Social Psychology discipline. Interchange of home and professional spaces (specially for women) as a great source of stress has been analysed from different points of view. Sensitives with these reality, this article shows an analysis of the principal research focused on psychosocial transitions, bidirectional stress, inter-rol conflict (FIW family interference with work as WIF work interference with family), stress-levels, and finally, the question of power. Then, the general characteristics of these studies are showed as a summary, as well as lacks that they have been happened. In this way, the author thinks about the way the future research could be managed towards the socio-economical context of the population (macro-level) as well as the qualitative analysis could be focused on the diadic universe (micro-level)

0. Sarrera

Gaur egun, generoaren ikuspegitik aztertutako estresari buruzko ikerlana gairik garrantzitsuenetarikoa bat da Gizarte Psikologiaren arloan. Emakumezkoek langintzan izandako partaidetzak —desabantailan oraindik gizonetzkoekin alderatuta— gero eta ikerketa gehiago eragin ditu; izan ere, elementu estresagarriak eta giza-kianga izandako eraginari buruzko ikerketak burutu dira etxeko lanen eta langintzaren arteko elkarbizitasun edo bateraezintasuna aztertzeko.

Sexu bakoitzari esleituriko eremu tradizionala haustearen ondorioz, adierazle batzuk azaleratu dira aktore sozialen arteko ezberdintasunak (sexuen arabera) eraikitakoak eta faltsuak direla baieztatuz, eta ez biologiak eragindakoak, duela gutxi pentsatzen zen bezala (paradigma diferentzialaren iritzi). Horrela, gizarteratze-prozesuek (ikastetxea, lagunak, familia) nahiz eguneroko pertsona arteko eta talde arteko harremanek genero-rolaren tentsioak mugatzen dituzte. Egun, emakumezkoek emakume- nahiz gizon-roletan dihardute, gizonetzkoak, ordea, urrun daude emakume-rol tradizionaletik. Burke-ren arabera (2002), gizonetzkoengan izandako isolamendu mingarriaren eta pribilegioaren nahastea rol-aldaketaren ondorioz gerta daiteke. Kaufman-ek (1993) *“cracking the armor”* izendatzen du metaforikoki prozesu hau, alegia, “maskulinitatearen oskola”ren haustura.

Datozen lerroetan, gai honi buruzko azken ikerlanak bildu eta berraztertuko ditugu: gizabanakoaren trantsizio psikosozialak, lanaren eta familiararen arteko elkarbizitasuna (WIF), familiararen eta lanaren arteko bateraezintasuna (FIW), estresaren analisi-maila, eta nola ez, botereari lotuta dauden hipotesiak, besteak beste, izango ditugu hizpide.

1. Trantsizio psikosozialak eta bizitzaren gertakizunak: amatasuna eta lanaldiaren bikoiztasuna

Trantsizio psikosozialaren definizioak esanahi asko ditu (Baubion-Broye eta Hajjar, 1998). Kontzeptu honen inguruko definizioak gizartean (Soziologia) eta gizabanakoengan (Psikologia) kokatu dira. Edozein modutan, gizarte-psikologia frantses tradizionalak eredu konstruktibista eta estrukturalistaren aldeko ikuspegi bateragarria aukeratu du gizabanakoaren pertsonalizazio- eta gizarteratze-jarduerak aztertzeko xedearekin.

Gure iritziak, pertsona bakoitzaren bizi-zikloaren alorrean gertatutako trantsizio psikosozialak izango lirake gizabanakoa beste egoera berri batera eramango luketen aurreikusitako eta aurreikusi gabeko gertaerak (bizitzaren gertakizunak): esate baterako, desintoxicazio-tratamendurako internamendu eta egonaldiak, espetxealdiak, langabe gazte nahiz helduei zuzendutako ikastaroak eta prestakuntza, bikoteen hausturak, lana galtzea, ikas-mailaz aldatzea, langintzatik erretirora pasatzea, gaitasun fisikoen galera (ezintasuna), amatasunaren ondorioz eragindako etxeko eta lantokiko berrantolaketa, etab. Trantsizio hauek guztiek, oro har, izaten dute izendatzaile komuna: egoera berri batek dakarren ziurgabetasuna (zorigaitzak, zalantzak, ahaleginak, nekeak, sufrimenduak, hersturak, dilemak, etab.).

Gizarte-psikologia frantsesak trantsizio psikosozialari emandako definizioa hauxe da:

Itxaroten ez diren (baita aurreikusitakoak diren) gertakizun arrunt edota bereziekin lotzen diren zeharkako eta giltzarriko faseak; gizabanakoaren irudipenetan eta harremanetan eragindako haustura edo eraldaketa lirake ezaugarri nagusiak. Gertakizun hauek izan daitezke ezusteko edo aurreikusteko modukoak, laburrak edo luzeak; gizabanakoaren garapenari krisialdi eta geldierak eragin diezaizkiokete, eta, aldi berean, gizabanakoengan eragin ditzakete proiektu, balio eta jokaera berriak nahiz haien asmakizuna (Baubion-Broye eta Hajjar, 1998: 17).

Ziurgabetasuneko etapa hori pausoz pauso bizi daiteke, aldez aurretik ez baitago aurreikusitako eta aldaketarik gabeko prozesurik. Demagun arestian aipatutako gazte baten desintoxikazioaren adibidea: klinika edo egoitza batean sartu, egonaldia gainditu eta berriaz gizarteratu. Hiru gertakizun horien bitartez eta bizi izandako trantsizioei esker, iheskortasun eta ziurgabetasunaren alorrean tesuinguruko faktore zein prozesu psikologikoei daukaten garrantzia azpimarratu ahal izango litzateke. Amatasunari eta arlo profesionallean dakarren ondorioei dago kienez, ezin du gu ahaztu gizabanakoaren bizitzaren gertakizun garrantzitsuenetarikoen baten aurrean geundeekeela, eta horrez gainera, langintzan izandako emakumezkoen partaidetzaren ondorioz, pertsona anitzei eragingo liekeela. Zentzu horretan, Almudever-en aburuz (1998), garrantzitsua da prozesu psikologikoei (identitatea, irudipenak eta kognizioak) aztertzea, egoera berriarekin batera (egokitzapen-maila) eta ziurgabetasunaren tratamenduaren inguruan hasten baitira birdefinitzen eta berpizten.

Horrela, tesuinguruko faktoreek (estruturalak, sistemaren barnean eta kanpoan daudenak) eta harremanei dagozkienek (pertsona artekoak, konparaketa-prozesuak, etab.) eragiten diote ziurgabetasunaren arloari. Orduan, gizabanakoak pertsona arteko (egoeraren kontrola, autoestimua) eta talde arteko (senitarte, adiskide, lankideak, etab.) baliabideak astintzen ditu.

Ondorioz, senitarte berri baten etorrerak (haurra) familiaren antolamendu eta erritmoan eraldaketa batzuk dakartza, langintzan ere eragina izanez. Sarritan, bi esparru horien artean gatazkak suertatzen dira, batik bat, etxez kanpo lan egiten duten emakumeak dira gehiago sufritzen dutenak lanaldiaren bikoiztasunaren ondorioz. Hori guztia aintzat hartuz gero, ezinbestekoa daukagu genero aldagaia ikerketaren diseinuan sartzea. Ikuspegi horretatik, are interesgarriagoa da Marin, Infante eta Rivero-k (2002) etxean nahiz langintzan diada familiarrei eragiten dizkieten elementu estresagarriak buruz burututako ikerketa kuantitatiboa, tentsioaren aurrean izandako emakumezkoen ahulguneak argitzeko gauzaturikoa. Literaturan zehar argi dago emakumezkoen amatasunak eta lana uzteak trantsizio psikosoziala dakarkietela. Ziurgabetasunaren fasea oinarri daiteke familiaren presioan edota lantokiko presioetan (batez ere, jarraipen profesionalarekin zerikusia dutenetan), subjektuaren tentsio emozionalean, baita etxearen eta langintzaren arteko bateraezintasunean ere —estresik garrantzitsuen—.

2. Etxeko lanek eta langintzak eragindako estresa

Marin, Infante eta Rivero-k (2002) bi esparru hauen arteko nahasketaren ideiarri eusten diote. Ideia hau ez da berria, hamaika urte lehenago Gutek, Searle eta Klepa-k (1991) proposatu zuten noranzko biko dinamika agertuko zela etxeko lanen eta langintzaren arteko alorrean. Marin eta laguntzaileen (2002) aburuz, langintzan diharduten emakumezkoek, gizonezkoekin konparatuta, etxeko lanen eta langintzaren arteko elkartzinetasunaren dilemari aurre egin beharko diote, etxeko esparruan izandako paper sozialaren (genero-rol tradizionalaren) eraginez; langintzan, aldiz, ez litzateke gertatuko, lan egitea oso legitimoa delako bakoitzaren garapen profesionalerako, edo gaur egungo familientzat oso eskasa delako soldata bat baino ez izatea.

Horri lotuta, gaur egun gero eta emakume gehiagok garrantzi handiagoa ematen diote euren garapen profesionalari, *career salience* delakoari. Gizarteratze-prozesuaren aldaketak, rol maskulino tradizionalaletan jarduteko gero eta formakuntza hobea izateak edo presio ekonomikoak (bizi-proiektuaren finantziarazioarako) eragin dezakete gaur egungo emakumezkoengan. Azken ikerlanetan (Moya, Expósito eta Ruiz, 2000), ikasketa-maila baxua, genero-ideologia tradizionala eta zaindu beharreko haurren kopurua erlazionatzen dira garapen profesionalari ematen zaion lehentasun eskasarekin. Bestalde, ikerketa gehienek izendatzaile komuna izaten dute: betiere, emakumezkoek gizonezkoek baino neurri handiagoan pairatzen dute estresa bi esparru hauen arteko elkartzintasunaren ondorioz. Denboraren erabilerari buruzko inkestaren arabera (INE, 2003), edadetu eta haurren zainketak emakumezkoen esku jarraitzen du. Horrela, emakumezkoen %92,7k egunero batez beste bost ordu ematen dizkie familiaren zainketari eta etxeko lanei; gizonezkoen %70,1ek, ordea, egunero batez beste bi ordu. Deigarria aurkitzen dugu 25 urtetik beherako gazteek —bai neskek, bai mutilek— muzin egitea etxeko lanei.

Marin eta laguntzaileen (2002) arabera, langintzaren eta familiararen arteko gatazka (WIF, *work interference with family*) argitzeko, ezinbestekoa da langintzarekin zerikusia duten hiru elementu estresagarri klasikoak kontuan izatea: rol-gatazka (Peiró, Meliá, Zacaes eta Gonzalez-Roma, 1987), rolaren anbiguotasuna (Peiró, Meliá, Torres eta Zurriaga, 1987) eta gehiegizko lan-karga (Kelly eta Voydanoff, 1985). Inkesta horren arabera, beste bi faktoreekin konparatuz gero, gehiegizko lan-karga da gehiago nabarmentzen dena. Kontrako noranzkoan familiararen eta langintzaren arteko gatazka aurki dezakegu (FIW, *family interference with work*); horrek esan nahi du etxean izandako gatazkak langintza-esparrura ere pasa daitezkeela. Dena dela, gaur egungo literaturak ez du gehiegi sakondu noranzko biko gatazkaren (langintzatik → familiara eta familiaratik → langintzara) efektu gehigarrietan. Marin eta laguntzaileen (2002) aburuz, gizonezko langileek ez dituzte elkartzintzat hartzen etxeko lana eta langintza. Gizonezkoek “sekuentzialki” heltzen diete betebeharrei; emakumezkoek, berriz, etxeko eta lantokiko betebeharrei aldiberekotasunaren sentimendupean helduko liekete. Segur aski emaitza hori azaltzeko bi faktore nagusi hartu behar ditugu kontuan: (a) nor arduratzen den etxeko lanetan aurrea hartzeaz edo nork daraman betebeharren pisu nagusia, eta (b) nola eta zer kopurutan banatzen diren betebeharrak, alegia, etxeko lan guztietan ala horietako batzuetan parte hartzen den, ahalegin eskasak ematen ez direnean.

Bestalde, klase sozial kontzeptua garrantzitsutzat hartu beharko genuke ikerketa-mota hauetan. Azken ikerketetan ezinbestekotzat hartu izan da botere kontzeptua. Diada familiarrean etxearen eta langintzaren arteko bateraezintasunak eragindako gatazka konpontzeko orduan, ezinbestekoa daukagu ezagutzea zein den familiaren gaitasun ekonomikoa, horrek azaltzen baitu zein neurritan kontratatzen den etxeko lanerako laguntzaile bat (sarritan emakumezkoa). Brooker eta Eakin-ek (2001) diotenez, lan prekarioetan eta klase sozial baxuetan aurkitzen ditugun emakumezkoek bi esparruen gehiegizko lan-karga eta estresa pairatuko lituzkete.

3. Estresaren analisi-maila

Etxeko lanak eta langintzak eragindako estresaren analisiari heltzeko ikuspegi hauek kontuan izan dira: epidemiologikoa, estrukturala eta psikosoziala (Brooker eta Eakin, 2001).

3.1. Ikuspegi epidemiologikoa

Estresa eta herstura (*distress*) agertuko lirateke subjektuak antzematen duenean bere ahaleginak ez daudela behar bezala ordainduak edo konpentsatuak (dirua, autoestimua, lan-egonkortasuna, promoziorako aukerak, etab.). Premisa honetan oinarritu da ahalegin eta konpentsazio arteko desorekaren eredua (Siegrist, 1996). Ikuspegi epidemiologikoak elementu estresagarriek gizabanakoengan eragindako gaixotasuna baino ez du aintzat hartu, klase sozial eta genero aldagaiak ikerlanaren diseinutik kanpo uzten ditu, garrantzitsuak ez bailiran. Azken urteotan, botere kontzeptua —klase sozialean eta generoan oinarrituta— *job-control* terminoari loturik azaldu izan da ikuspegi epidemiologikoa zabalduz, azken horrek argituko bailizkiguke gizanabanakoak bere ibilbide profesionala gidatzeko daukan gaitasuna nahiz erakundean izandako autonomia-maila.

3.2. Ikuspegi estrukturala

Ikuspegi epidemiologikoarekin alderatuta, hemen langintzaren estresa maila makroteorikoan aztertzen da. Proposamen honen bitartez bi galdera hauei erantzun nahi zaie: zergatik langileek astiro-astiro galtzen duten euren etorkizun profesionalaren kontrola, eta, harreman kapitalistaren testuinguruan, zergatik suertatzen den lanbide-prestakuntzarik eza beharginen lanpostuetan. Langile-klaseari dagozkion lan-baldintzen aldaketen inguruan sor daitezke deskribatzaile hauek guztiak, hau da, aldaketa estrukturalean klase soziala, langintza-estresa eta gizarte-testuingurua izango genituzke.

3.3. Ikuspegi psikosoziala

Ikuspegi honetatik genero eta estresari buruzko ikerlan ugari gauzatu dira. Tradizio horretan, hiru planteamendu klasikoetatik gidatu dira estresari buruzko ikerketak: (1) rolaren teoria, (2) aurre egitearen banakako estiloak, eta, (3) erakunde eta enpresen politikak.

Generoaren rolaren teoriari dagokionez, genero eta estresari buruzko ikerketek agerian utzi dute emakumezkoek, gizonetzkoekin konparatuta, herstura gehiago

pairatuko luketela, segur aski, euren lan-tasa baxuaren ondorioz, independentzia ekonomikoa eta garapen pertsonala murriztuta. Rol sozialaren hipotesi horretatik abiatuta, autoreek iradokitzen dute emakumezko langileek heretura-sentimendu gutxiago pairatuko luketela, emakumezko langabetuekin konparatuta. Planteamendu horren aurrean, rol sexualaren hipotesiak proposatzen du emakumezko langileek, euren senarrekin konparatuta, denbora gehiago eskainiko lieketela etxeko lanei, eta horretaz gain, euren lan-motak izango liratekeela autonomia gutxikoak, errepikakorrak eta aspergarriak, gizonaekoei, gehienbat, suertatzen ez zaiena. Bi hitzetan; batetik, rol sexualaren teoriak garrantzi handiagoa emango lioke genero-rolen arteko kalitateari, eta, beste aldetik, rol sozialaren planteamenduak rolairen kopuruan kalitatean baino arreta handiagoa jarriko luke.

Brooker eta Eakin-en (2001) iritziz, lantokian dauden ezaugarri batzuen irakurpen sinbolikoak eraman dezake estresa sufritzera. Adibidez, lantoki txiki eta aireztapen eskasekoak gizabanakoengan eragin dezake, horretaz gain, langileak lantokiaren interpretazioa egiten du esanahia lortzeko asmoz, kasu horretan, botere eta balio gutxikoa dena. Hori dela eta, esan dezakegu badagoela lantokiaren ezaugarri fisikoei buruzko analisia, baita analisi horrek dakarren botere altu edo baxuaren irudipenari buruzko irakurpen sinbolikoa ere.

Estresari aurre egiteko bakarkako estiloei (*coping*) buruzko ikerketek azpimarratu dituzte gizabanakoek elementu stresagarrien aurrean izandako pertzepzioak zein interpretazio subjektiboak. Ikerlan batzuetan, stresari aurre egiteko orduan, nortasunaren ezberdintasunak aztertu izan dira, horrela, iradoki da emakumezkoek erabiliko lituzketela estilo pasiboagoak, elementu stresagarriak saihestu nahian, batzuetan depresioarekin lagunduta. Gizonaekoei, aldiz, estilo aktiboagoak erabiliko lituzkete elementu stresagarriei aurre egiteko. Edozein modutan ere, planteamendu hauek orain arte ezin izan dira behar bezala orokortu.

Bestalde, grina handiz aztertutako gaia enpresen politika daukagu. Matuszek, Nelson eta Quick-ek (1995) proposatzen dute enpresa-esparruan gauzatzen diren planak ez direla inolaz ere mesedegarriak emakumezkoentzat; horiei ematen zaien errekonozimendu profesional baxuak nahiz askotan jasotako lan-giro kaskarrak eragiten dute estresa areagotzea. Estresa aztertzeke orduan, ikuspegi honek garrantzi handiagoa ematen dio lan-giroari pertsonari baino.

4. Generoa eta boterea

Genero-ikuspegitik abiatutako trantsizio psikosozialei buruzko ikerketa psikosozialak gutxi dira. Halaber, estatistika-institutuen arabera, gaur egungo egoera argi dago: emakumezkoen langabeziaren tasa altua, soldata eskasa, lanaren errekonozimendurik eza, etxeko lanei dedikazio handiagoa, etab. emakumezkoen egoera kaskarraren isla dira. Horrek adieraz dezake aldaketa makroekonomikoek aldaketa asko ekartzea mikro mailan (familia-esparruan).

Saltzman-ek (1992) aurreikusten du 2020. urterako emakumezkoek gizonaekoen %75 eta %90 bitarteko soldata irabaztea. Horrela bada, mikro mailan (familian) gaur arte izandako senarren botereak behera joan beharko luke. Horrekin batera, gizonaekoen gazteagoak eta hobeto prestatuek etxeko lanetan laguntza handiagoa

emango lukete. Gaur egungo gizarteratzeko jarraibideek pentsarazi digute datozen belaunaldiek etxeko lanetan berdintasunezko portaera erakutsiko dutela

Egun, hipotesi batzuek azpimarratzen dute gizabanakoek dibortzioa irtenbideztat hartuko luketela etxeko eta lantokiko betebeharrak eragindako tentsioa gainditzeko. Bestalde, etxetik at lan egiten duten emakuzmekoek, batez ere, soldata altuagoa dutenek, dibortzioa erakargarriztat eta bideragarriztat hartuko lukete (Wilkie, 1988). Dena den, arestian baieztatutakoa kontu handiz hartu beharko litzateke, kontuan izanik unibertso diadikoan boterearen asimetria izateaz gain, elementu afektibo zein emozionalak ere dauzkagula, eta inolaz ere ezin direla baztertu.

Saltzman-ek (1992) *Generoa eta berdintasuna* liburu famatuan aurreratzen du gizonezkoen jaiotzatiko gaitasun eta botere fisikoaren erabilerak isla dezakeela bikoteetan gertatutako pentsabide-aldaketa; horrela, genero-indarkeriak, hots, emakumearen aurkakoak, argituko luke bikotean gizonezkoek boterea galtzeko daukaten erresistentzia erreala, eta ez bakarrik adierazle sinbolikoa —orain arte pentsatu den bezala—. Gizarteko estruktoretan izandako botere sustraitu honen aurrean, autore batzuk emakumezkoen eta gizonezkoen arteko harremanetan izandako genero-rol tradizionaletara hurbildu dira, rol horiek aldaketaren elementu sinbolikotzat (rolaren urratzea) eta ikonografikotzat hartuz (Sánchez de Miguel, 2004). Ildo horretatik, etxean izandako emakumezkoen betebeharrak tradizionalak eta langintzan nahiz esparru publikoan izandako gizonezkoen paperak, azken horien aldeko boterea islatuko lukete, finantziario ekonomikoa eta beste baliabide batzuen jabe gisa (Eagly, 1987).

Autore horrek ere planteatzen du emakumezkoa langintzan gehiago sartzen den neurrian, orduan eta aldaketa gehiago izaten direla bikotearen harremanean. Ikuspuntu interesgarri batetik, Johannessen eta Eagly-k (2002) diote bikotekidearen idealizazioan (bikotekidearen botere ekonomikoari buruzko balorazioa, bikotekidearen arteko adina-aldea, ideia eta sinesmenekin bat etorri, ezaugarri femenino tradizionalak baloratu, etab.) genero-ideologia tradizionalenak aurki genitzakeela. Sánchez de Miguel-ek (2004) auzi honetan sakontzen du, gizonezkoengan bikotekidearen idealizazio tradizionalari lotutako portaera sexista eta instrumentalak aurkituz. Era berean, hau ere aurkitzen du: andrea langabezia duten gizonezkoek —lanean dutenekin konparatuta— portaera sexistagoa erakusten dutela.

Horren azpian daukagu laguntza eta berdintasunezko portaerarik ezak emakumezkoen garapen pertsonala murriztuko lukeela, aisialdia nahiz ikusmira profesionalak mugatuz eta estresa erraztuz, betiere, gizonezkoek bikotearen esparruan izandako boterearen mesedetan.

5. Ondorioak

Ikuspegi psikosozialetik, genero-rolaren tentsioak eragindako estresa ikergai izan duten familiaren dinamikei buruzko ikerlanek hiru ardatz nagusi izan dituzte:

1. Genero-rolaren garrantzia; gizabanakoaren identitate sozialean faktore aipagarria da-eta.

2. Familiari eta lanari emandako denboraren proportzioa, aurreneko gizarteratze-prozesuak, sinesmen eta ideiak barneratzeko prozesuak, eta, generoari dagokion portaera tradizionalari buruzko arau eta ikusmiren (genero-rola) azterketak, besteak beste.
3. Babes soziala (bai emozionala, bai materiala) nahiz estresari aurre egiteko erabilitako estrategiak (*coping*).

Ildo horretatik, Greenhaus eta Parasuraman-ek (2002) bikotekideen arteko negoziazioari heldu zioten, bikotekideen arteko isileko akordio bat zegoela argudiatuz, non bietako batek langintzari denbora gehiago ematen zion, eta besteak, ordea, familiari. Oro har, identitate sozialaren teoriarekin batera, autore hauek diote lan- eta familia-rolak identitate nabarmenaren arabera eraikiko liratekeela. Halaber, informazio esankorra aurkitu ez ezik, planteamendu hauek ere ez dira egiaztatu behar den bezala.

Gure iritziz, ikerlan hauetan hutsune ugari izan dira, bost ardatz nagusitan labor genitzakeenak:

1. Klase sozial altu edo ertaineko pertsonen buruzko ikerlanak besterik ez dira egin.
2. Laginak esperientzia profesional gutxiko ikasleez osatzen dira.
3. Askotan ere, subjektuek ez d(it)u(z)te pairatzen langintzaren eta etxeko lanaren arteko rol-gatazka (WIF) edota etxeko lanaren eta langintzaren artekoa (FIW).
4. Politika sozialik ez da aztertu.
5. Ikerketa kualitatiboen falta nabarmena da.

Beharbada, sistema kapitalistaren eta egitura sozioekonomikoen eraginez, rol arteko gatazkak ilusio dikotomikoetatik berrirakurri dira, hots, ematen du arrakasta profesionalak dakarrela porrota edo murrizketa arlo pertsonalean. Korman eta Korman-en (1980) aburuz, fenomeno hau agertuko litzateke adin ertainean eta lanbide-ibilbidearen erdian. Autore horien arabera, gizabanakoaren karrera profesionalaren (bere engainu eta sariekin ere) eta pertsonaren *self* sentimendu sakonaren arteko aldeak herstura psikologikoa eragingo luke neurri ezberdinetan.

Hala ere, arestian aipatu ilusio dikotomikoa zalantzan jarri da. Gaur egun badira bere karrera profesionalen enpresa edo erakundearen eskakizunen menpean (elementu estresagarriak) sentitzen direnak eta bere garapen pertsonala zoriontsu eta egoki aurrera eraman ezin dutenak. Argi dago, gizabanakoek behin beraien bizi-proiektua (etxebizitza, haurrak, etab.) gutxi gorabehera finantziatua izanda, aisialdia beren buruari eta familiari eskaintzen dietela; hemen azalduko litzateke lanaldi luze eta aparteko orduen kontrako portaera berri bat, lehen bizi-proiektua finantziatzeko balio izan zuenaren aurkakoa, hain zuzen. Hasieran, gizabanakoek gehiegizko lanaldiak eta elementu estresagarriak pairatuko litzateke, sufrimendu eta prekaritatearen (metaforikoki “zerga sozialak” direlako) itzalpean euren bizi-proiektua finantziatzeko, “aurreikusitakoak” eta “normalak” bailiran.

Bikotekideen arteko boterearen asimetriei dagokienez, autore batzuek (Burke, 2002) maskulinitate tradizionala —genero-ideologiaren barnean— berriz eraiki eta izendatu behar dela diote, gizonengan etxeko betebeharrak hurbiltasuna eragiteko asmoz. Gure aburuz, mikro mailako aldaketak gertatu beharko lirateke makro mailako aldaketekin batera, hots, etxeko lanarekiko gizonezkoen erabateko inplikazioak ez du ezertarako balio —ez laguntza puntualak— rol arteko gatazka (WIF, langintzaren eta etxeko lanen artekoa) gutxitzeko, aldi berean ez baldin badira abian jartzen politika sozialak (etxebizitzaren prezioak, haurrentzako laguntzak, lan-baldintza txarren eta gehiegikeriaren aurkako ekimenak, etab.) eta beharrezko organizazio-aldaketak.

Bi hitzetan: datozen ikerlanek kontuan izan beharko lituzkete populazioaren testuinguru sozioekonomikoa (makro maila analisia) eta, bereziki sakonean, diadaren unibertsoa (mikro maila analisia). Maila horretan, analisi kualitatiboak ekar lezake etxeko lanen inguruko informazio interesgarria, batez ere, nola, noiz, zenbatetan eta zertan diharduten bikotekideek. Horretaz gain, jakin ahal izango genuke zenbateraino bat datozen familia eta gizabanako bakoitza etxeko eta lantokiko elementu estresagarri buruzko pertzepzioarekin.

Agian, ahalegin horri esker, gizakiarentzat posible eta eginezina dena, baita horren ondorioak ere, argitu ahal izango genuke ikuspegi psikosozialetik. Agian, dilema bakoitzaren atzean, erabaki arriskutsu bakoitzaren azpian, ezusteko edo aurreikusitako trantsizio psikosozial bakoitzean, aurki dezakegu gizakiaren motibazio itxaropentsu bat sistema neketsu eta estresagarri honetatik ihes egiteko. Agian, gizon eta emakume askorentzat, sarritan ere, sistema edo egoera horretan “gatibu” izateak bizirik irautea esan nahi du.

Hori guztia argitzea izango da gure hurrengo erronka.

Bibliografia

- Almudever, B. (1998): “Relations interpersonnelles et soutien social en situations de transition psychosociale”, in A. Baubion-Broye (arg.), *Evenements de vie, transitions et construction de la personne*, Érès, Saint-Agne Frantzia.
- Barnett, R. C. eta Baruch, G. C. (1987): “Social roles, gender and psychological distress”, in B. a. B. Barnett (arg.), *Gender and Stress*, Free Press, New York.
- Baubion-Broye, A. eta Hajjar, V. (1998): “Transitions psychosociales et activités de personnalisation”, in Érès (arg.), *Evenements de vie, transitions et construction de la personne*, Érès, Saint-Agne Frantzia.
- Brooker, A. S. eta Eakin, J. M. (2001): “Gender, class, work-related stress and health: toward a power-centered approach”, *Journal of Community & Applied Social Psychology*, **11**, 97-10.
- Burke, R. (2002): “Men, masculinity and health”, in N. Burke (arg.), *Gender, Work stress and health* (35-54), APA, Washington.
- Eagly, A. (1987): *Sex differences in social behavior; a social role interpretation*, Erlbaum, Hillsdale.
- Gianakos, I. (2002): “Predictors of coping with work stress: the influences of sex, gender role, social desirability, and locus of control” *Sex Roles*, **46**(5/6), 149-158.

- Greenhaus, J. eta Parasuraman, S. (2002): "The allocation of time to work and family roles", in N. Burke (arg.), *Gender, work stress and health* (115-128), APA, Washington.
- Gutek, B.; Searle, S. eta Klepa, L. (1991): "Relational versus gender role explanations for work-family conflict", *Journal of Applied Psychology*, **76**, 560-568.
- INE (2003): *Encuesta de empleo de tiempo (EET)*, Instituto Nacional de Estadística, Madrid.
- Johannesen, M. eta Eagly, A. (2002): "Another look at sex differences in preferred mate characteristics: the effects of endorsing the traditional female gender role", *Psychology of Women Quarterly*, **26**(4), 322-328.
- Kaufman, M. (1993): *Cracking the armor*, Viking, Toronto.
- Kelly, R. eta Voidanoff, P. (1985): "Work/family role strain among employed parents", *Journal of Applied Family and Child Studies*, **3**(34), 367-374.
- Korman, A. eta Korman, R. (1980): *Career success and personal failure*, Prentice-Hall, New York.
- Marin, M.; Infante, E. eta Rivero, M. (2002): "Presiones internas del ámbito laboral y/o familiar como antecedentes del conflicto trabajo-familia", *Revista de Psicología Social*, **17**(1), 103-112.
- Matuszek, P.; Nelson, D. eta Quick, J. (1995): "Gender differences in distress: are we asking the right questions", *Journal of Social Behaviour and Personality*, **10**(6), 99-120.
- Moya, M.; Exposito, F. eta Ruiz, J. (2000): "Close relationships, gender and career salience", *Sex Roles*, **42**(9-10), 825-846.
- Peiro, J. M.; Melia, J. L.; Zacaes, I. eta Gonzalez-Roma, V. (1987): "La medida de la experiencia de conflicto en el desempeño de roles. Cuestionario de conflicto de rol", *Evaluación Psicológica*, **3**(3), 345-381.
- Peiro, J. M.; Melia, J. L.; Torres, M. A. eta Zurriaga, R. (1987): "La medida de la experiencia de la ambigüedad de rol en organizaciones. Cuestionario General de Ambigüedad de Rol en Ambientes Organizacionales", *Evaluación Psicológica*, **3**(1), 27-53.
- Saltzman, J. (1992): *Equidad y género*, Ediciones Cátedra, Madrid.
- Sanchez de Miguel, M. (2004): *La construcción del género: cultura, identidad y cambio social*, Tesis doctoral, Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia.
- Siegrist, J. (1996): "Adverse health effects of high efforts/low reward conditions", *Journal of Occupational Health Psychology*, **1**, 27-41.
- Smith, C. (1993): "Evaluations of what's at stake and what I can do", in L. Kahn (arg.), *Women, work and coping*, McGill-Queen's University Press, Montreal.
- Wilkie, J. (1988): "Marriage, family life and women's employment", in S. a. Harkess (arg.), *Women working: theories and facts in perspective*, (149-166), Mountain View, CA., Mayfield.

